DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Zk. / Nº 2016/1184

**EBAZPENA**

PILAR RIOS RAMOS andreak, NAN 30.647.115-Y, Udalaren izenean eta Alkateorde delarik, 2015eko ekainaren 29ko alkate-dekretu bidez onarturiko delegazioarekin bat etorriz, gaurko eguneko dekretuaren bidez, honakoa erabaki du 207/ 2016/DL espedienteari buruz:

Durangoko Udalaren eta MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEaren artean hitzarmena sinatzeko proposamena dela-eta.

Aztertu ondoren hitzarmena sinatzeko informe teknikoa, eta aintzat harturik Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza nagusia eta diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra.

E R A B A K I  D U T

1.Hitzarmena formalizatzea Durangoko Udalaren eta MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEaren artean, honako testu honekin:

DURANGOKO UDALAREN ETA MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKE ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA

BILDURIK: Batetik, PILAR RIOS RAMOS andrea (NAN: 30.647.115-Y), DURANGOKO UDALEKO alkateordea, ekintzaren fede ematen duen idazkari nagusi RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak lagundurik (NAN: 14.586.472-X).

Eta, bestetik, MEDICUSMUNDI BIZKAIA Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundearen (GGKE) izenean, presidentea, MARIA ITZIAR IRAZABAL AGUIRRE andrea (NAN 305778310V).

DIHARDUTE: PILAR RIOS RAMOS andreak, Udalaren izenean eta alkateorde delarik, 2015eko ekainaren 29ko Alkatetza-dekretu bidez onarturiko ordezkaritzarekin bat etorriz;RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak, Udaleko idazkari nagusi moduan; eta, MARIA ITZIAR IRAZABAL AGUIRRE andreak, MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEaren presidentea moduan.

AITORTU ONDOREN batak besteari behar besteko

**RESOLUCIÓN**

Doña PILAR RIOS RAMOS, DNI 30.647.115-Y, en su calidad de Teniente de Alcaldesa, en nombre y representación del Ayuntamiento, en virtud de la delegación acordada por la Alcaldesa mediante decreto de 29 de junio de 2015, por su decreto de fecha de hoy, ha dispuesto con relación al expediente 207/ 2016/DL lo siguiente:

En relación con la propuesta de firma de convenio entre LA ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIAy el Ayuntamiento de Durango.

Visto el informe técnico justificativo de la procedencia de la firma de un Convenio, de acuerdo con lo indicado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango y en la Ley 38/2003 General de Subvenciones

H E  R E S U E L T O

1.Formalizar un Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y LA ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIA con el siguiente texto:

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIA

REUNIDOS: De una parte, Doña PILAR RIOS RAMOS, con D.N.I. nº 30.647.115-Y, teniente de alcaldesa del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistida del Secretario General Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, con D.N.I. nº 14.586.472-X, que da fe del acto.

Y de otra, LA ORGANIZACIÓN NO GUBERNAMENTAL PARA EL DESARROLLO MEDICUSMUNDI BIZKAIA, representada por Doña MARIA ITZIAR IRAZABAL AGUIRRE con D.N.I. nº 305778310V, en su condición de presidenta de la asociación.

ACTUAN:Doña PILAR RIOS RAMOS,en su calidad de tenienta de alcaldesa, en nombre y representación del Ayuntamiento, en virtud de la delegación acordada por la alcaldesa mediante decreto de 29 de junio de 2015; Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, en su calidad de Secretario General del Ayuntamiento y Doña MARIA ITZIAR IRAZABAL AGUIRRE, como presidenta de la ONGD.

RECONOCIÉNDOSE las capacidades jurídica y de obrar



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 10706572433735362252 CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua

gaitasun juridikoa hitzarmena gauzatzeko,

ADIERAZI DUTE:

I.- MEDICUSMUNDI BIZKAIA Osasun Lankidetzaren Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea (GGKE) da, eta 1966. urtean sortu zen Bilbon. Onura Publikoko erakunde gisa izendatuta dago.
Haren eginbidea da gizartean aldaketak egiten laguntzea; horretarako, elkartasuneko eta herritarren konpromisoen kultura bat sustatzen du, pobrezia desagerrarazteko eta osasuna pertsona orok eskuratzeko moduko eskubide bat izan dadin lortzeko.

GGKE horrek parte hartzeko bi ildo estrategiko ditu: alde batetik, garapenerako eta heziketarako lankidetzaren arloa; eta bestetik, komunikazio garapenerako.

Garapenerako arloan, Medicusmundik ibilbide luzea du Erdialdeko Amerikako herrialdetako lankidetzan, eta erabiltzen duten lan ikuspuntua giza eskubidea da; batik bat, sexu- eta ugalketa-eskubideak babesteko, errespetatzeko, eta bermatzeko. Horrez gain, berariaz lantzen dute emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko prebentzioa eta borroka.

Era berean, GGKE hori jabekuntza arloa lantzen ari da Kongoko Errepublika Demokratikoan, hain justu, genero-indarkeria pairatu eta bizirik irten diren emakumeekin.

II.- MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEak ondorengo programak garatzen ditu:

- 1º "Quetzaltenango departamenduan indarkeria jasotzeko arriskuan dauden emakumeei arreta integrala ematea. "Nuevos Horizontes" elkartearen CAIMU aterpetxean.Guatemala"

- 2º "Arreta integrala ematea indarkeria sexuala jaso izan duten emakumeei, Levain de Masses arreta egoitzaren azpiegiturak hobetuz. Kongoko Errepublika Demokratikoa.

III.- Durangoko Udalak lankidetza-esparru bat formalizatu nahi du MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEarekin, emakumeek pairatzen duten giza eskubideen urratzeak salatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria errotik kentzeko prebentzio-lana jorratzen dituzten programak babesteko.

BETEBEHARRAK:

DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA .- Durangoko Udalak 30.000 (HOGEITA HAMAR MILA) euroko diru-laguntza emango dio MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEari. Diru-laguntza horrek xede-izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.

necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

MANIFIESTAN:

I.- Que MEDICUSMUNDI BIZKAIA,es una Organización No Gubernamental para el Desarrollo (ONGD) de Cooperación Sanitaria fundada en Bilbao en 1966. La entidad está declarada como asociación de Utilidad Pública.
Su misión es contribuir a generar cambios en la sociedad, fomentando una cultura de solidaridad y compromisos ciudadanos, que hagan posible la erradicación de la pobreza y permitan que la salud sea un derecho al alcance de todas las personas.

La ONGD tiene dos líneas de acción principales: área de Cooperación al desarrollo y Educación y Comunicación para el desarrollo.

Desde el área de cooperación Medicusmundi tiene una larga trayectoria en la intervención en los países de Centroamérica, en donde viene trabajando desde un enfoque de Derechos Humanos en la protección, respeto y garantía de los Derechos Sexuales y Reproductivos, haciendo especial hincapié en la prevención y la lucha por la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Asimismo la ONGD también está interviniendo en la línea de empoderamiento de las mujeres supervivientes de violencia de género en República Democrática del Congo.

II.- Que LA ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIA, desarrollará los programas :

- 1º "Atención integral a la población vulnerable de la problemática de violencia contra las mujeres del departamento de Quetzaltenango, en el albergue del CAIMU de la Asociación Nuevos Horizontes". Guatemala".

- 2º "Apoyo integral a mujeres víctimas de violencia sexual a través de la mejora de las infraestructuras del centro de acogida Levain de Masses. Republica Democrática del Congo.

III.- Que el Ayuntamiento de Durango desea mantener un marco estable de colaboración con la ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIA, con el fin de denunciar la situación de vulneración de los derechos humanos que sufren las mujeres, y apoyar los programas dirigidos a la prevención y a la erradicación de la violencia contra las mujeres.

CLÁUSULAS:

COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 30.000 (TREINTA MIL) euros a LA ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIA, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente.

COMPROMISO ASUMIDO POR LA ONGD



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV:
10706572433735362252 CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

MEDICUSMUNDI BIZKAIA GGKEk HARTZEN DUEN KONPROMISOA.

Ondorengo ekintzak antolatzea eta egitea:

- Ondorengo programa kudeatzea: "Guatemala: Indarkeria sexualari aurre egin dioten emakumeei laguntza integrala eskaini. "Nuevos Horizontes" aterpetxea. Quetzaltenango. Guatemala"
- Ondorengo programa kudeatzea: "Arreta integrala ematea indarkeria sexuala jaso izan duten emakumeei Levain de Masses arreta egoitzaren azpiegiturak hobetuz. Kongoko Errepublika Demokratikoa".
- Udalerrian heziketa garapenerako programa hau kudeatzea: "Emakumeen kontrako indarkeria komikien eta bertsolaritzaren bidez".
- Lankidetzan aritzea eta Durangoko Udalari aholku ematea, informazio eta sentsibilizazio ekintzetan, hegoaldeko herrialdeetan bizi diren emakumeen eskubideen urraketari buruz.
- Proiektuen gastuak justifikatzea, 2016ko fakturen bidez.

- 2017. urteko lehenengo hiru hilabeteetan jardueraren memoria zehatza aurkeztea.
- Ekintzak Udalak diruz lagundutakoak direla agerian uztea, elkarteak programaren berri zabaltzeko informazio grafiko, idatzi eta entzuteko guztietan.

IRAUPENA.- Hitzarmena bertan behera geldituko da 2017ko martxoaren 31n.

HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.- MEDICUS MUNDI BIZKAIA GGKEakhartu dituen konpromisoak bete ez baditu, lankidetza-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako dirulaguntza itzuli beharko du, halaxe ezartzen baitute dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

BATERAGARRITASUNA.- Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.

ARAUDI OSAGARRIA.- Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

2. Gastua onartzea ADO fasean eta hitzarmenean aipatzen den kopuru honegatik: 30.000,00 Euro. Ordainketa 51.2315.48102 diru-partidaren kargura egingo da.

3. Ordainketa hitzarmenean aipatzen den eran egingo da.

MEDICUSMUNDI BIZKAIA.

Organizar y realizar la siguiente actuación:

- Gestionar el programa: "Apoyo integral para mujeres sobrevivientes de violencia sexual, Albergue Nuevos Horizontes". En Quetzaltenango. Guatemala.

- Gestionar el programa "Apoyo integral a mujeres víctimas de violencia sexual a través del a mejora del as infraestructuras del centro de acogida Levain de Masses. República Democrática del Congo.
- Desarrollar el programa de educación para el desarrollo en el municipio "Las violencias contra las mujeres a través del cómic y la bertsolaritza"
- Colaborar y asesorar al Ayuntamiento de Durango en las actividades de información y sensibilización sobre la vulneración de los derechos que viven las mujeres en los países del sur.
- Justificación de los gastos correspondientes a los proyectos mediante facturas correspondientes al año 2016.
- Presentación de memoria detallada de su actividad dentro del primer trimestre de 2017.
- Hacer constar de forma clara que la actividad está subvencionada por el Ayuntamiento de Durango, en toda la información grafica, escrita y sonora que la asociación realice con motivo del programa o en su difusión.

DURACIÓN.- El presente Convenio quedará extinguido el 31 de marzo de 2017.

EXTINCIÓN.- El incumplimiento de los compromisos adquiridos por la ONGD MEDICUSMUNDI BIZKAIA producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.

COMPATIBILIDAD.- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

NORMATIVA COMPLEMENTARIA.- En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

2. Aprobar el gasto en fase ADO por el importe del Convenio, y que asciende a 30.000,00 Euros, con cargo a la partida 51.2315.48102

3. Que los pagos del Convenio se realicen de acuerdo con lo establecido en el propio



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 10706572433735362252 CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua

4. Hitzartutako dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrei dagokienez, dirulaguntza justifikatzeko epeei dagokienez eta justifikatu gabeko diru-kopuruak itzultzeari dagokienez, hitzarmenean ezartzen dena hartuko da kontuan eta, halaber, dirulaguntzen ordenantza arautzaileak zehazten duena.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Convenio.

4. Que en materia de obligaciones del beneficiario de la subvención conveniada, de plazos para justificar la subvención y en materia de reintegros de cantidades no justificadas se estará se estará a lo indicado en el propio Convenio y, supletoriamente, en lo indicado en la mencionada Ordenanza Reguladora de subvenciones.

Lo manda y firma la Teniente de Alcaldesa delegada, de todo lo cual yo, Secretario General de la Corporación, doy fe.

Pilar Ríos Ramos
Gizarte Ekintza eta Enplegua batzordearen Presidentea
Presidenta de la Comisión de Acción Social y Empleo

Ramon Sorarrain Tolosa
Idazkaria - Secretario



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 10706572433735362252 CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua